

Talde nominalaren teknika

Deskribapena

Proposamenak lehenesteko erabiltzen da teknika hau, bideragarritasuna, abagunea, posibilitatea, beharra etab. irizpide erabiliz.

BIDERAGARRITASUNA: Egin al daiteke? Ba al dugu horretarako baliabiderik, denborarik, jakintzarik eta behar besteko gaitasunik?

ERABILGARRITASUNA: Zertarako da erabilgarri? Zein izango da onuradun?

ABAGUNEA: Une egokia al da? Laster edo goizegi, beranduegi al da?

BEHARRA: Beharrezkoa al da ala beste aukera batzuk ba al daude?

Prosezua

1. Teknika hau erabili aurretik, beharrezkoa da gaien lehentasunak finkatzea eta zerrendan jasotzea. (Post-itak erabilita lortutako emaitzak: kidetasuna eta SEBEA)
2. Guztiek ezagutzen dute sakon gai bakoitza. Hori horrela dela egiaztatzea beharrezkoa izan daiteke, edota proposatu duenak azaldu beharko die gaia besteei. Kontua da lehentasunak ahalik eta zehatzen finkatzea.
3. Teknika hau egiteko orduan, ez da hitz egin behar, ez da eztabaidatu behar (teorian, behintzat, lan hori aurrez eginda baitago); prozedura azaldu, banatu, eta kide bakoitzak berea beteko du banatutako baliabidea erabiliz. (ikus 1. tresna)
4. Emaitzak jasoko dira (erantzuna eta erantzun-emailea bananduz). Arbelera edo gardenki batera eramango dira eta bertan puntuazioak jarriko dira. (ikus 2. tresna)
5. Puntuaziorik handiena lortu duten gaiak lehenetsiko dira.
6. Lehenik, erabaki behar da zenbat gai aztertuko diren (baliabideak, denbora...); ondoren, egin beharreko lana planifikatu (plangintza-fitxa), eta martxan jarri behar da.